# Bestelako Xedapenak

**NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA**

**1247**

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 13koa, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariarena, zenbait belarkiren ekoizleentzako ordainketa egokituetan borondatez lagatzeko ehunekoa % 50ean handitzen duena, 2009ko kanpainan zehar.

2009ko otsailaren 11ko EHAAn (29. zk.) urtarrilaren 20ko 13/2009 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako ordainketa bakarraren erkidegoko laguntzen jardunbidea eta bestelako zuzeneko laguntzen jardunbidea garatzen eta aplikatzen duena.

Dekretu horren 34. artikuluan zehaztutakoaren arabera, belarki-laboreei dagokienez, azalerako ordainketak eskatzen dituzten nekazariek azalerako % 10 kendu ahal izango dute, borondatez kentzeko kontzeptupean belarki-laborearentzat azalerako ordainketa-eskaera aurkeztu badute. Era berean, 36. artikuluan zehaztutakoaren arabera aldakortasun klimatikoaren arrazoiak direla-eta, kanpainan anormaltasunak agertzen direnean, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eskualde edo zonalde horretako nekazaritza-ustiategiak 34. artikuluan xedatutako mugez salbuetsi ahal izango ditu.

Bada, 2008ko udazkeneko eta 2009ko neguko klima-baldintza bereziak izan direla-eta, gure autonomia erkidegoan belarki-laboreak landatzen diren esparruetan nekazari askok ezin izan dituzte labore berriak erein, ez eta, kasu batzuetan, aurreko uzta jaso ere.

Beraz, urtarrilaren 20ko 13/2009 Dekretuaren 36. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen direnez, belarki-laboreei dagokienez, azalerako ordainketak eskatzen dituzten nekazariek % 50ean handitu dezakete borondatez lagatzeko azalera-ehunekoa, eta horrela 2009ko kanpainan zehar euren egoera hobetzeko bide izango dute.

Horiek horrela, honako hau

ERABAKI DUT:

***Lehenengoa.***– 2009ko kanpainan, belarki-laboreei dagokienez, azalerako ordainketak eskatzen dituzten nekazariek azalerako ehuneko 50 kendu ahal izango dute, borondatez kentzeko kontzeptupean belarki-laborearentzat azalerako ordainketa-eskaera aurkeztu badute.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN**

**1247**

RESOLUCIÓN de 13 de febrero de 2009, del Director de Agricultura y Ganadería, por la que se amplia hasta el 50% el porcentaje de retirada voluntaria en los pagos acoplados a los productores de cultivos herbáceos durante la campaña 2009.

En el BOPV n.º 29 del miércoles 11 de febrero de 2009 se publicó el Decreto 13/2009, de 20 de enero, de desarrollo y aplicación en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco del régimen de ayudas comunitarias de pago único y otros regímenes de ayudas directas a la agricultura y ganadería.

En su artículo 34 dispone que los agricultores que soliciten pagos por superficie a los cultivos herbáceos podrán retirar hasta el 10% de la superficie por la que hayan solicitado los pagos, si bien éste porcentaje se puede elevar en determinadas circunstancias. Asimismo el artículo 36 dispone que cuando por causa de la variabilidad climática aparezcan anormalidades en una campaña determinada la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco podrá eximir del respeto a lo dispuesto en el artículo 34 en las explotaciones agrarias de las regiones o zonas afectadas.

Pues bien, las excepcionales condiciones climáticas del otoño de 2008 y del invierno de 2009 han imposibilitado a buena parte de los agricultores de aquellas zonas de la Comunidad Autónoma en la que se siembran cultivos herbáceos la realización de las labores de siembra e, incluso en algunos casos, la cosecha del cultivo anterior.

Por lo tanto, se cumplen las condiciones previstas en el artículo 36 del Decreto 13/2009, de 20 de enero antes mencionado para poder ampliar el porcentaje de retirada voluntaria a los agricultores que soliciten pagos por superficie a los cultivos herbáceos y subir el límite hasta el 50% y contribuir así a mejorar su situación durante la campaña 2009.

En su virtud,

RESUELVO:

***Primero.***– Durante la campaña 2009 los agricultores que soliciten pagos por superficie a los cultivos herbáceos podrán retirar hasta el 50% de la superficie por la que hayan solicitado los pagos en concepto de retirada voluntaria.

***Bigarrena.***– Agindu hau sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Nolanahi ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ahal izango da.

***Hirugarrena.***– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea bukatzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari, argitaratzen den egunetik hasita hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 13a.

Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

***Segundo.***– Sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, la presente Resolución surtirá efectos desde el día de su firma.

***Tercero.***– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero en el plazo de un mes a contar desde su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de febrero de 2009.

El Director de Agricultura y Ganaderia,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.